

Irurtzun-Andoain  autobia

Habemus autobia

Ibilgailuak Gipuzkoa eta Nafarroa elkartzen dituen autobian barrena dabilta dagoeneko

Urteetako ika-mikak atzean utzita, Gipuzkoa eta Nafarroa elkartzen dituen autobia atzo eguerdiko ordu batean egindako ekitaldi ofizialean inauguratu zuten, Juan Cruz Alli, Eli Galdos eta Jose Antonio Ardanza buru zirela. Handik hiru ordura abiatu ziren estreinako ibilgailuak autobidean barrena.

A. ZUBEROGOITIA / **BERASTEGI**

Eguerdiko ordu batean egin beharreko ekitaldia baino lehenago, ordea, bi herrialdeetan ere mugitzen hasiak ziren. Gipuzkoan, Ardanza eguerdian Andoainera heltzeaz batera ohorezko aureskua dantatu eta zinta ebaki zuten, segidan Berastegi partera abiatu ziren. Berastegin, EAeko lehendakariak Gipuzkoako zatiaren oroimenez eginiko plaka desestali zuen. Handik mugara egin zuten gutietiek.

Nafarrek, bestalde, Urritzako tunelaren irteeran izan zuten zinta. Bertan Nafarroako gobernuki-deek, bidearen azalpen teknikoak entzun ondoren, ohorezko plaka jarri zuten. Behin hori eginda, Gipuzkoak eta Nafarroak elkar ukitzen duten Leitzarango zubira abiatu ziren. Heldu zirenerako zain zeuden besteak, eta Allik eta Ardanzak elkar besarkatu zuten, Galdos, Murua, Sudupe, Maturana, Sanz, Lopez Borderias, Otano eta enparauak so zituztela. Derrigorrezko argazkien ostean, aureskua dantatu zen, eta ondoren Allik zinta moztu zuen ofizialki, agintariei puska bana emanez, aipatzekoa da Imanol Muruari ere zati bat eman nahi izan ziola.


Protokoloari jarraiki, hitzaldien txanda izan zen gero. Eli Galdos Gipuzkoako diputatu nagusiak berba egin zuen lehenengo. «Zailtasun ugari izan badiu ere», esan zuen, «ikus dezakezuen autopista hau errealitate pozgarria da». Aipatzekoa da Galdosek bere hitzaldian 'autopista' berba erabili zuela behin eta berriz bide berria izendatzeko, 'autobia' hitza aipatzeko.

Gipuzkoako diputatu nagusiak ez zituen iraganeko istiluak gogoratu gura izan: «Atzera begiratzeko baino gehiago benetan uste dut aurrera begiratzeko unea dela, azpiegitura honek Gipuzkoa eta Nafarroarentzat aurrerapenerako tresna izan behar baitu». Bidearen inaugurazioak daukan «garrantzi historikoa» nabarmendu eta gero, komunikatzeko erraztasun berriek «au-




Alli zinta mozten, Ardanza, Galdos eta Sudupe alboan dituela.

ANDER GILLENEA



Autobiaren Areso eta Uitz bitarteko zatia.

GILLENEA



Belabietako tunelaren ikuspegia.

GILLENEA

rriritziak gainditzen eta bi herrialdeen arteko harremanak hobetzen» lagunduko dutela iritziz. Galdosek, azkenik, «biolentziaren edota zoritxarreko istripuen eraginez lanon garapenean hil diren guztiak» ere gogoratu nahi izan zituen.

Galdosen ostean, Juan Cruz Allik hartu zuen hitza. Alliren ustez, autobien inaugurazioak gauza zehatza islatzen du: «Arrazionalitatearen garaipena irrazionalitatearen aurrean». CDNko buruak, gainera, ekologiketzeko prozesu honetan eginiko ekarpena ere nabarmendu nahi izan zuen, nahiz eta ingurugiroaren babesa «ebanjelio berria-

ren moduan ulertzen dutenak» kritikatu.

Nafarroako eta EAeko erakunde arteko elkarlanaren garrantzia ere hizpide izan zuen Allik. Behin puntu horretara helduta, gogor ekin zion elkarlan honen aurka daudenen kontra. Bere iritziz, «jende horrek elkarlanean bere aurriritziak baino ez ditu ikusten, gure gizarteak gaindituak daukan une historikoetan ainguratuta geratu direlako».

Are urrunago ere joan zen Alli bere salaketetan; bere ustez, EAeren eta Nafarroaren arteko elkarlanaren aurka daudenen aurriritziak «ez dira soilik ikus-

mena oztokatzen dieten goldebelarriek ezartzen dizkietenak». Izan ere, «arazoak bakarrik ikusmenari dagozkionak balira, beturreko on batzuekin konpondu ahal izango liriteke, baina hauek buruari dagozkion arazoak dira, eta ez dago horiek gainditzetik». Nafarroako lehendakariak, azkenik, Nafarroaren eta EAeren arteko lana defenditu zuen. «proiektu politikoekiko eta diferentziarekiko errespetutik abiatuz».

Jose Antonio Ardanza EAeko lehendakaria izan zen hitz egiten azkena. Ardanzak, hasieran berba egiteko asmorik ez zeukala argitu eta gero, autobien erai-

kuntzan izaniko zailtasunak gogoratu zituen, errepidea errealitate bihurtu dutenen ahalegina azpimarratzeaz batera. Hori esatean, Imanol Murua aurreko Gipuzkoako diputatu nagusia ere ekarri zuen gogora.

Hitzaldiak amaituta, eguerdiko ordu bata t'erdietan Belabietako tunelaren aldamenera abiatu zen agintari eta kazetariz osaturiko tropelaren zatirik handiena, bertan autobien eraikuntzaren prozesu historikoari buruzko azalpenak entzuteran. Hala ere, benetako historia bi ordu t'erdigeroago hasiko zen tajutzen, lehenbiziko autoak autobian barrena abiatu zirenean.